



AKTA

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZARRAK** telematikoki egindako ohiko bilkurarena,

2021eko uztailaren 7koa

Organo honetako kideen bilkura telematikoa egin da bideokonferentziaren bidez **13:22ak** direnean, eta jarraian zerrendatzen diren batzarkideak telematikoki elkartu dira **ohiko bilkura** egiteko **lehenengo deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzarreko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua eta Gianfranco Ghiro Alonso jauna, behean izenpetzen duena, aritu da aldi baterako idazkari lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak bideokonferentzia saiora konektatu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)
Txerra MOLINUEVO LAÑA jn. (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)
Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)

Ez da bertaratu eta ezin etorria justifikatu du:

Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Halaber, Kuadrillako teknikari gisa Urresti, Amurrio eta Arbaizagoitia andreak telematikoki bertaratu dira, euren arloko puntuak azaltzeko.

Bilkura modu telematikoan ezarri da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren Azken Xedapenetako Bigarrenean ezarritakoaren arabera. Horrek Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, zehazki 46. artikuluko 3. atalean, organo honen bilkurak telematikoki egitea ahalbidetzeko, aintzat hartuta Covid-19ak egun sortutako ezohiko osasun-egoera.

Kuadrillako presidente andreak, **13:22an**, osoko ohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, **lehenengo deialdian**, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Eskualdeei buruzko Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki-araubidearen



oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Presidente andreak hasteko agindua eman du, aztergaien zerrendari jarraituz.

1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da, hori aztertzeko, eta ez dagoenez inongo alegaziorik, **ERABAKI DA**, aho batez, 2021eko ekainaren 16ko bilkuraren akta onestea.

2.- EUSKARAREN BIDEZ SOZIALIZATZEKO PROGRAMETARAKO 2021 FORU-LAGUNTZEN ESKAERA ONESTEA, HALA BADAGOKIO

Amurrio andreak azaldu du euskara bidezko sozializazio-programak egiteko 2020rako foru-laguntzak eskatzeko programa-proposamena.

Diputatu nagusiaren ekainaren 16ko 200/2021 Foru Dekretuaren bidez (2021-06-30eko ALHAO) onetsi zen, udalek eta kuadrillek euskararen bidez sozializatzeko programak garatzeko 2021. ekitaldiko diru-laguntzen deialdi publikoa.

Guztira 3.600,00 €-ko gastuaren aurrekontua izanik, Arabako Foru Aldundiari 1.440,00 €-ko dirulaguntza eskatzea proposatu da, HAINBAT JARDUERA EUKARAZ partidaren bidez. Horren helburua da **Udaberriko oporraldian euskaraz** eta **EBETE hitzaldien zikloa** 2021eko udaberrian eta udazkenean garatzea, Aiarako Kuadrilla osatzen duten bost udalekin koordinatuta.

Udaberriko oporraldian euskaraz kanpainaren helburua zen garatzea udaberriko oporraldirako euskarazko aisialdi-programazioa, euskararen bidez sozializatzeko jarduerekin, eskualdeko haur eta gazteei zuzendutako tailer edo saio telematikoen bidez. Hain zuzen ere, streaming bidez egiten ziren euskarazko jardueren programa bat zen. Horren bidez, euskaraz jarduteko, esku hartzeko eta sozializatzeko aukera ematen zen. Jarduerak apirilaren 6tik 9ra bitartean egin ziren eta Aiaraldeko 11 eta 16 urte bitarteko biztanleentzako tailerrak edo saioak ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko ekainaren 16an onartu zuen **EBETE hitzaldien zikloa**. Ziklo honek ordu eta laurdeneko hitzaldiak ditu eta gaia honako hau da: azaltzea euskara ez dakiten gurasoei beren seme-alabei eskolako



zereginetan nola lagundu. Datorren ikasturtearen hasieran udalerrri bakoitzean hitzaldi bat ematea aurreikusita dago.

Gastu osoaren aurrekontua **3.600,00** eurokoa da (BEZ barne) eta 1.440,00 euroko dirulaguntza eskatuko da.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU:**

IKUSI DA Diputatu Nagusiaren ekainaren 16ko 200/2021 Foru Dekretua (ALHAO 2021-06-30). Horren bidez, udalek eta kuadrillek 2021eko ekitaldian euskararen bidez sozializatzeko sustatutako programak garatzeko diru-laguntzen deialdi publikoa onetsi da.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Ekainaren 16ko 200/2021 Foru Dekretuaren (ALHAO 30-06-2021) bidez deitutako euskararen bidezko sozializazio-programetarako 2021eko foru laguntzei 1.440,00 euroko zenbatekoa eskatzea. Hori guztia Udaberriko oporraldian euskaraz eta EBETE hitzaldien zikloaren arabera proposatutako programak aintzat hartuta eta 3.600,00 euroko guztizko gasturako.

BIGARRENA.- Udaberriko oporraldian euskaraz eta EBETE hitzaldien zikloa garatzea Laudioko eta Amurrioko euskara-zerbitzuekin koordinatuta.

HIRUGARRENA.- Aiarako Kuadrillak konpromisoa har dezala aisialdiko programak (udalekuak, jokoan txokoak, ludotekak, gaztelekuak edo antzekoak) egingo dituzten langile guztiek, gutxienez, batxilergoa euskaraz eginda edukitzeko edo B2 maila egiaztatuta Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren edo baliokidearen arabera.

LAUGARRENA.- Aiarako Kuadrillak konpromisoa har dezala aisialdiko programa horien (udalekuak, jokoan txokoak, ludotekak, gaztelekuak edo antzekoak) ardura duten langileen %50ek edo gehiagok programa hasi aurretik gutxienez sozializazio-ikastaro bat euskaraz eginda dutela.

3.- NORMALIZAZIO TEKNIKARIAREN BORONDATEZKO BAJAREN BERRI EMATEA



Castresana andreak adierazi du Maddalen Amurrio González andreak, Hizkuntza Normalkuntzako teknikari lanetan ari denak, borondatezko baja eskatu duela 2021eko uztailaren 18an.

4.- AIARAKO KUADRILLAN INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZA HOBETZEKO PROPOSAMENA ONESTEA, HALA BADAGOKIO

Castresana andrea horrela proposatuta, aho batez erabaki da hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DIRA Aiarako Kuadrillan indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko proposamenean egindako aldaketak.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Indarrik gabe uztea ekainaren 16ko Tokiko Gobernu Batzarrean gai honi buruz erabakitakoa gai zerrendako 7. puntuan.

Urresti andreak proposamena aurkeztu du indarkeria matxistaren kasuotan arreta hobetzeko, betiere kasu horietan jarduteko protokoloan eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituneko neurrietan onartutakoari jarraituz.

Laguntza hori hobetzeko zerbitzua abian jartzeko, Aiarako, Artziniegako eta Okondoko Udalek eskatu dute Kuadrillako gizarte langilearen lanaldia luzatzeko eta aipatutako Udaletan indarkeria matxistaren kasuetarako laguntza presentziala emateko. Hori guztia honen arabera:

Artziniega: astelehenetan, 8:00etatik 15:00etara (lehen 9:00etatik 12:30era zen).

Aiara: ostiraletan, 8:00etatik 11:00etara.

Okondo: ostiraletan, 12:00etatik 15:00etara.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DIRA Aiarako, Artziniegako eta Okondoko Udalek aurkeztutako eskaerak, Kuadrillako gizarte langileak bere udalerrietan indarkeria matxistaren kasuetarako aurrez aurreko laguntza zerbitzua emateko.

IKUSI DA berdintasun teknikariak egindako txostena.

IKUSI DA proposatutako arreta hobetzeak eragindako gastua finantzatzeko krediturik ez dagoela eta beharrezkoa dela aurrekontuan aldaketa egitea.



IKUSI DA zerbitzu hori eman behar dela.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Kuadrillako gizarte langileak indarkeria matxistaren kasuak artatzeko Aiarako, Artziniegako eta Okondoko Udalek egindako eskaerak onartzea.

BIGARRENA.- Kuadrillako gizarte-langilearen lanaldia egun eta erdi luzatzea, indarkeria matxistaren kasuak artatu, jarraitu eta laguntzeko erreferente izan dadin, 2021eko uztailaren 19tik abenduaren 31ra.

HIRUGARRENA.- Lanaldiaren handitzearen kostuak honako ehuneko hauen arabera finantzatzea:

O Aiarako Udala: % 37,53

O Artziniegako Udala: % 32,59

O Okondoko Udala: % 29,88

5.- SARE SOZIALEN KONTRATUAREN LUZAPENAREN BERRI EMATEA

Ghiro jaunak jakinarazi du gizarte-sareen kontratua urtebetez luza zitekeela, eta esleipendunak onartua izan den proposamen bat egin dela, 2021eko abenduaren 31ra arte edo esleipendun berriaren sarrera-egunera arte luzatzeko. Zerbitzua urrian edo azaroan lizitatuko da eta kontratu berria urte naturalarekin bat etorriko da.

6.- APEA/APEI 2021 PROGRAMAN ERAKUNDE LAGUNTZAILE GISA PARTE HARTZEKO ESKAERA ONESTEA, HALA BADAGOKIO

Ghiro jaunak jakinarazi du LANBIDEk 2021eko ekimenerako laguntzen deialdia egin duela.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU:**

IKUSI DA 2021eko maiatzaren 26ko Ebazpena, Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak emana eta 2021eko ekitaldirako ekintzaileentzako euskarri izateko laguntzen deialdia argitaratzen duena.



ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Pertsona ekintzaileak hautatzeko, tutorizatzeko eta/edo haiei laguntzeko erakunde laguntzaile gisa parte hartzeko eskatzea.

BIGARRENA.- Ahalik eta pertsona ekintzaile gehienei arreta emateko eskatzea, taula honen arabera.

IDEIA ENPRESARIALA GARATZEKO LAGUNTZAK						
30 URTETIK BEHERAKOAK				HOGEI URTETIK GORAKOAK		
	KOPURUA	DIRULAGUNTZA		Nº	DIRULAGUNTZA	
		APEI	ENTI		APEI	ENTI
GIZONAK	3	3.450,00 €	900,00 €	3	3.000,00 €	900,00 €
EMAKUMEAK	2	2.600,00 €	600,00 €	4	4.600,00 €	1.200,00 €
GUZTIRA	5	6.050,00 €	1.500,00 €	7	7.600,00 €	2.100,00 €

JARDUERA ENPRESARIAL BERRIAK ABIARAZTEKO ZUZENDUTA DAUDEN LAGUNTZAK						
30 URTETIK BEHERAKOAK				HOGEI URTETIK GORAKOAK		
	KOPURUA	DIRULAGUNTZA		Nº	DIRULAGUNTZA	
		APEA	ENTA		APEA	ENTA
GIZONAK	2	3.450,00 €	2.000,00 €	3	4.500,00 €	3.000,00 €
EMAKUMEAK	2	3.900,00 €	2.000,00 €	3	5.175,00 €	3.000,00 €
GUZTIRA	4	7.350,00 €	4.000,00 €	6	9.675,00 €	6.000,00 €

22 pertsona ekintzaileri laguntza eman ahal izateko dirulaguntza eskatu da. Pertsona horiek 30.675,00 euroko dirulaguntza jasoko dute gehienez, eta Aiarako Kuadrillak 13.600,00 euroko gehienezko dirulaguntza jasoko du erakunde laguntzaile izateagatik.

**7.- 2021 TOKIKO ENPLEGU-PLANETARAKO LAGUNTZEN
ESKAERA ONESTEA, HALA BADAGOKIO**



Ghiro jaunak jakinarazi du ekainaren 30ean argitaratu zela 2021 Tokiko Enplegu Planetarako laguntzen deialdia. Horrenbestez, 2021erako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa hau da:

DIRULAGUNTZA 2021			
	1 ETA 2 MOTA	1 ETA 2 MOTA	TOTAL
AMURRIO	141.840,66 €	79.578,81 €	221.419,47 €
ARTZINIEGA	18.022,96 €		18.022,96 €
AYALA/AIARA	23.069,38 €		23.069,38 €
OKONDO	9.191,71 €		9.191,71 €
ORDUÑA	18.743,87 €		18.743,87 €
LAUDIO/LLODIO	230.513,60 €	122.956,44 €	353.470,04 €
GUZTIRA	441.382,18 €	202.535,25 €	643.917,43 €

Castresana andreak adierazi du Kuadrillako langileen beharrak ikusita eta, bereziki, arlo administratiboan, pertsona bat kontrata daitekeela Aiarako Kuadrillan administrari laguntzaile gisa sei hilabetean jarduteko. Aurreikusitako kostua 15.820,00 eurokoa da, eta horietatik 12.500,00 LANBIDEk diruz lagunduko ditu.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DA 2021eko ekainaren 16ko Ebazpena, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak emana, 2021eko ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdia argitaratzen duena.

IKUSI DIRA Aiarako Kuadrillak gaur egun dituen langileen beharrak.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA. Aiarako Kuadrillan administrari laguntzaile izateko lanpostu bat kontratatzeke dirulaguntza eskaera onestea, hori guztia 2021. ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntza eskatzeko kontratazioen artean.



Ghiro jaunak udalek eskatutako kontratazioen berri eman du, halaber akonpainamendu jarduketetarako eta kontrataziorako laguntzak eskatzeko aukeraren berri eman du.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DA 2021eko ekainaren 16ko Ebazpena, Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak emana, 2021eko ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdia argitaratzen duena.

IKUSIN DA litekeena dela Tokiko Gobernu Batzarrik ez izatea eskaera epea amaitu baino lehen.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- 510.300,00 euroko laguntzak eskatzea Enplegua Sustatzeko ekintzetarako, honako kontratazio hauek egiteko:

		PERTSONA KOP	DIRULAGUNTZA
LAUDIO	5eko 3 talde	15	187.500,00 €
AMURRIO	5eko 2 talde	10	125.000,00 €
AMURRIO	3 herri laguntzaile	3	24.000,00 €
AMURRIO	Administraria	1	12.500,00 €
	2		
AYALA	Peoiak+adminls+ark	4	50.000,00 €
OKONDO	3 peoi	3	36.300,00 €
ARTZINIEGA	2 peoi + adminis	3	37.500,00 €
ORDUÑA	2 peoi	2	25.000,00 €
KUADRILLA	Administraria	1	12.500,00 €
		42	510.300,00 €

Peoiei eta kontratatutako ekipoei laneratzen laguntzeko ekintzetarako laguntzak eskatzea 1.020,00 € pertsonako eta guztira 29 pertsonarentzat. Guztira 29.580 euro.

Kontrataziorako 100.000,00 euroko laguntzak eskatzea.



BIGARRENA.- Aiarako Kuadrillaburua gaitzea 2021. ekitaldirako tokiko enplegu-ekintzetarako laguntzen eskaera aldatzeko, baldin eta parte hartzen duen udalen batek eskatutako aldaketarik badago. Betiere, enplegua sustatzeko ekintzetarako eta kontrataziorako laguntzen batura gehienez 643.917,43 €-koa bada.

8.- TURISMO-JARDUEREN KONTRATAZIOA ONESTEA, HALA BADAGOKIO

2021 turismo-laguntzak oraindik ebatzi gabe dauden arren, oraindik ere jarduera batzuk esleitzen joan behar dira, horiek ebatzi orduko abian jarri ahal izateko.

8.1 ACEVIN ikuskapenak prestatzea

Ghiro jaunak jakinarazi du 2018an, eskualdeko turismo-laguntzak kudeatzen hasi zirenean, Txakolinaren Ibilbidearen ziurtagiria berritzeko auditoriak pasatzen saiatu zirela, baina erakunde kudeatzailean izandako aldaketengatik ez zirela gainditu. Iaz berriro eskatu genuen, eta eman ziguten bide berri baten 12.000,00 € ordaindu gabe. Auditoretzak egiteko behar diren aldaketak egin eta prestatzeko, aurrekontua eskatu zaio AC Consultores enpresari, eta proposamena II. ERANSKIN bezala atxikita dago.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU:**

IKUSI DA sustapen ekonomikoko teknikariak egindako txostena.

IKUSI DA 432 227992 partidan kreditu nahikoa dagoela.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Esleipena onartzea Txakolinaren Ibilbidea betetzeko laguntza teknikoa eta ebaluazioa **RC QUALITEC, SLL** (IFK: B13339734) enpresari aurkeztutako aurrekontuaren arabera **BOST MILA LAUROGEITA BI EURO** (5.082,00 €), **BEZ BARNE** euroko kopuruan.



BIGARRENA.- Prestakuntza-jardunaldia Txakolinaren Ibilbideko kideei eta/edo etorkizuneko kideei esleitzea **RC QUALITEC, SLL** (B13339734 IFK) enpresari aurkeztutako aurrekontuaren arabera. **SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (665,50 €), BEZ BARNE** euroko kopuruan.

8.2 Bisita antzeztuak

Ghiro jaunak adierazi duenez, 2021. urteko turismo jardueren proposamenen artean kaleko animazioa sartu zen minimaridajeetan, Artziniegara bisita antzeztuak eta Lamuzako parkean antzeztutako ikuskizunak. Hiru enpresari aurrekontuak eskatu zaizkie. Aurkeztutako hiru enpresetatik Iparnature SLri uko egin zaio aurkeztutako eskaintzaren prezioa eta ezaugarriak. Sapo Producciones eta Arimaktore enpresek aurkeztutako proposamenak **III., IV., V., VI., VII., VIII. eta IX. eranskinetan** jaso ziren.

Informazioa eta eztabaida amaituta.

Artziniegara egindako bisita antzeztuei dagokienez, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DA 432 227992 partidan kreditu nahikoa dagoela.

IKUSI DA Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari turismo jardueretarako laguntzak emateko eskaerak ebatzi gabe daudela.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Artziniegara bisita antzeztuak **ASOCIACIÓN CULTURAL ARIMAKTORE** (IFK: G 95687133) enpresari aurkeztutako aurrekontuaren arabera esleitzea. Zenbatekoa: **ZORTZI MILA ZORTZIEHUN EURO (8.800,00 €) BEZ BARNE.**

BIGARRENA.- Jarduera hau jarduera turistikoetarako laguntzak ebatzen diren unean abiaraztea.

Laudioko antzerki-emanaldiei dagokienez, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:



IKUSI DA 432 227992 partidan kreditu nahikoa dagoela.

IKUSI DA Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jurlaritzari turismo jardueretarako laguntzak emateko eskaerak ebatzi gabe daudela.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Laudioko antzerki-emanaldien esleipena onartzea **ASOCIACIÓN CULTURAL ARIMAKTORE** (IFK: G 95687133) enpresari, aurkeztutako aurrekontuaren arabera. BOST MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEI euro (5.940,00 €) BEZ BARNE zenbateko kopuruan.

BIGARRENA.- Jarduera hau jarduera turistikoetarako laguntzak ebazten diren unean abiaraztea.

Kaleko animazioari dagokionez, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU:**

IKUSI DA 432 227992 partidan kreditu nahikoa dagoela.

IKUSI DA Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jurlaritzari turismo jardueretarako laguntzak emateko eskaerak ebatzi gabe daudela.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Esleipena onestea **ASOCIACIÓN CULTURAL ARIMAKTORE** (IFK:G95687133) enpresari, aurkeztutako aurrekontuaren arabera BI MILA SEIEHUN ETA BERROGEI EURO (2.640,00 €) BEZ BARNE euroko kopuruan.

BIGARRENA.- Jarduera hau jarduera turistikoetarako laguntzak ebazten diren unean abiaraztea.

8.3 Minimaredaje liburuxkak



Ghiro jaunak jakinarazi du dirulaguntzaren xede den ekitaldiak pintxo-txakolina minimaridajea egitea eskatu duela. Hori sustatzeko, kartelak eta liburuxkak eduki behar dira. Dagoeneko hainbat enpresari eskatu zaio aurrekontua. Jasotako aurrekontuak eta proposamenaren zergatik azaldu dira.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DA sustapen ekonomikoko teknikariak egindako txostena.

IKUSI DA 432 227992 partidan kreditu nahikoa dagoela.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Aiarako Minimariidajes ekitaldiaren liburuxka, irudia, kartelak, eta abar **AIARAGRAFIK DIGITAL SL** (IFK: B01418490) enpresari esleitzea aurkeztutako aurrekontuen arabera. B01418490 IFK, gehienez ere **BI MILA EURO (2.000,00 €) BEZ BARNE** euroko aurrekontuan.

BIGARRENA.- Jarduera hau abiaraztea jarduera turistikoetarako laguntzak ebazten diren unean.

8.4 Udako sustapen-kanpaina

Ghiro jaunak adierazi du Kuadrillako sare sozialak kudeatzen dituen Gureak enpresak eginiko proposamen bat jaso dela, 2021eko udan eskualdea sustatzeko. Horrenbesteez, proposamen horren berri eman da.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DA Gureak Marketing enpresak aurkeztutako proposamena, sare sozialak kudeatzen dituen.

IKUSI DA 432 227992 partidan kreditu nahikoa dagoela.

ERABAKI DA:



LEHENENGOA.- 2021 udako sustapen-kanpainaren esleipena onartzea, **GUREAK MARKETINK SL** (IFK: B20158218) enpresari aurkeztutako aurrekontuaren arabera, **BOST MILA BOSTEHUN ETA BOST EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (5.505,50 €)**, **BEZ BARNE** euroko kopuruan.

9.- 2021 UDA SUSTATZEKO KANPAINAREN BERRI EMATEA.

Puntu hau aurrekoan sartu da.

10.- ARABA MARKETEN ETA BONU KANPAINAREN BERRI EMATEA

Ghiro jaunak adierazi du herritarrentzako ataria martxan jarri dela eta uztaileen letik aurrera bonuak eros daitezkeela atxikitako negozioetan kontsumitzeko. Bonu bakoitzak 20 €-ko balioa du eta 12 € ordaintzen dira erostean. Kontsumitzaileak, gehienez ere, 10 bonu eros ditzake eta negozio bakoitzean, gehienez ere, 188 bonu truka daitezke.

11.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez da ezer aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **14:15ak** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, aldi baterako idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta neuk idatzitako gutzia egiaztatzen dut.

KUADRILLAKO PRESIDENTEA: ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.

KUADRILLAKO ALDI BATERAKO IDAZKARIA: GIANFRANCO GHIRO ALONSO

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**